

1. Lanek euskaraz idatziak egon behar dute.
2. Lanek jatorrizkoak, argitaragabeak eta beste lehiaketaren batean saritu gabeak izan behar dute.
3. Gaia librea izango da. Lanek, gehienez, 140 karaktere izan beharko dituzte, zuriuneak eta #365ipuin traola barne.
4. Lehiaketak hiru azpiatal izango ditu:
 - a. Postontziko ipuinik onena (0-17).
 - b. Postontziko ipuinik onena (18tik gora)
 - c. Twitterreko ipuinik onena.
5. Ezin daiteke aurkeztu ipuin bera postontzi bidez eta Twitter bidez.
6. Sariak:
 - a. Postontziko ipuinik onena (0-17): Tableta + liburu-sorta
 - b. Postontziko ipuinik onena (18tik gora): 100 euro + liburu-sorta
 - c. Twitterreko ipuinik onena: 100 euro + liburu-sorta
7. Lanak aurkezteko erak:
 - **Postontzien bidez:**
Ipuinak gehienez 140 karaktere izan beharko ditu, eta, nahitaez, **#365ipuin** traola sartu beharko da karaktere kopuru horren barruan. Postontzien alboan orri bat egongo da, ipuina bera eta parte-hartzailearen datuak idazteko.
Postontziak non dauden ikusteko, jo www.berbaro.eus webgunera.
 - **Twitter bidez:** #365ipuin traola erabili beharko da parte hartu ahal izateko.
8. Lanak aurkezteko azken eguna abenduaren 2a izango da.
9. Sari-ematea abenduaren 14an egingo da, Plateruena Kafe Antzokian, arratsaldeko 19:00etan.
10. Sariak eman gabe gera daitezke, eta epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.
11. Aurkezturiko idazlanak Berbaro Taldearen esku geratuko dira. Berbaro Taldeak bere webgunean edo beste komunikabide edo euskarritan argitaratu ahal izango ditu, betiere egilea aipatuta.